



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA (CAF)

Ohiko Batzar Nagusirako deialdia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA ("CAF" edo "Sozietatea") enpresako Administrazio Kontseiluak adostutakoaren arabera, akziodun jaun-andreei Ohiko Batzar Nagusira dei egiten zaie. Aipatutako Batzarra egoitza sozialean, Jose Migel Iturrioz kaleko 26. zenbakian, 20200 Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2023ko ekainaren 10ean, 12:00etan lehen deialdian eta, dagokionean, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian. Batzarraren helburua jarraian zehaztuko ditugun gaien inguruan hausnarketa egitea eta erabakiak hartzea izango da:

GAI ZERRENDA

Lehenengoa: Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SAren urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta sozietateen talde bateratuaren kudeaketa-txostena eta urteko kontuak, 2022ko ekitaldiari dagozkionak, onartzea.

Bigarrena: 2022ko abenduaren 31n itxitako ekitaldi sozialean Administrazio Kontseiluak egindako kudeaketa onartzea.

Hirugarrena: 2022ko ekitaldiari dagokion Finantza arlokoa ez den Informazio Egoera – Jasangarritasuneko Txosten bateratua onartzea.

Laugarrena: 2022ko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 0,86 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

Bosgarrena: Kontseilariak berriz hautatzea eta berrestea:

5.1. Javier Martínez Ojinaga jauna berriro aukeratzea Kontseilari Exekutibo gisa.

5.2. Begoña Beltrán de Heredia Villa andrea Kontseilari Independente gisa berrestea eta izendatzea.

Seigarrena: 2022ko ekitaldiari dagokion Kontseilarien Ordainsariei buruzko Urteko Txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

Zazpigarrena: Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

Informazio-eskubidea

Akziodun jaun-andreek informazioa jasotzeko eskubidea erabili ahal izango dute Batzarraren deialdia egiten den datatik hasita Kapitaleko Sozietateen Legeko 197. eta 520. artikuluetan eta iragarki honetan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

Kapitaleko Sozietateen Legeko 272 artikulua xedatutakoaren arabera, deialdi-iragarpen hau argitaratzen den unetik hasita, akziodunek Akziodunen Batzar Nagusiaren mende

jarri behar den dokumentazioa egoitza sozialean berehala eta doan eskuratzeko eta aztertzeko, edo doan bidal edo entrega diezaiotela eskatzeko eskubidea dute (+34 943.18.92.62 telefono-zenbakiaren bidez edo posta elektronikoa honetan: accionistas@caf.net).

- Gai-zerrendako lehen, hirugarren eta laugarren puntuekin lotuta: Sozietatearen eta haren talde bateratuaren 2022ko urteko kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontua, ekitaldiko ondare garbian izandako aldaketak islatzen dituen egoera, eskudirua fluxuen egoera eta memoria), Sozietatearen emaitza aplikatzeko proposamena, kudeaketa-txostena (Finantza arlokoa ez den Informazioaren Egoera - Jasangarritasuneko Txostena jasotzen du) eta auditoria-txostena. Taldeko kide diren sozietateetako akziodunek urteko kontu bateratuak osatzen dituzten dokumentuak eta Taldearen kudeaketa-txostena eta auditoria-txostena jaso ahal izango dituzte Sozietatearengandik.
- Gai-zerrendako bosgarrena puntuari dagokionez: Javier Martínez Ojinaga jauna exekutibo kategoriarekin kontseilari gisa berriro aukeratzeko proposamenaren inguruan Administrazio Kontseiluak prestatutako justifikazio-txostena eta proposamen horren inguruan Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak aurrez igorritako txostena. Horrez gain, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak Begoña Beltrán de Heredia Villa andrea kontseilari independente gisa berresteko eta izendatzeko egindako proposamena eta proposamen horrekin lotuta Administrazio Kontseiluak prestatutako justifikazio-txostena gehitu dira. Gai-zerrendako puntu honekin lotutako dokumentuek Akziodunen Batzar Nagusian haiek berriro aukeratzeko, berresteko eta izendatzeko (kasu bakoitzaren arabera) proposatzen den kontseilari buruzko informazioa jasotzen dute; hau da, haien nortasuna, curriculum eta kategoria, kasu bakoitzean proposatutako hautagaiaren gaitasunak, esperientzia eta merezimenduak aztertuta.
- Gai-zerrendako seigarren puntuari dagokionez: 2022ko ekitaldiari dagokion Kontseilariaren Ordainsariei buruzko Urteko Txostena, kontsultarako bozketa egiteko aurkeztu dena.

Aurreko dokumentu guztiak, eta Akziodunen Batzar Nagusiari dagokion gainerako informazioa, Sozietatearen webgunean ere kontsulta daitezke (www.caf.net), osorik eta etenik gabe Batzar Nagusia egin arte eta, zehatzago honako hauek:

- Deialdi-iragarpen hau.
- Gai-zerrendako puntu bakoitzarekin lotuta Akziodunen Batzar Nagusiaren onarpena jasotzeko aurkeztuko diren akordio-proposamenen testu osoa.
- Deialdiaren datan bozketarako eskubide eta akzio kopuru osoari buruzko informazioa.
- Gobernu Korporatiboaren urteko txostena, 2022ko ekitaldiari dagokiona.
- Auditorearen Independentzia Txostena, 2022ko ekitaldiari dagokiona.
- 2022ko ekitaldiari dagozkion Administrazio Kontseiluaren Batzordeen Funtzionamendu-txostenak.

- Botoa eskuordetzeko eta urruneko botoa emateko formularioak eta modu fisikoan parte hartu ahal izateko txartela.

Batzar Nagusirako deialdia argitaratzen den egunetik hasi eta Batzarra egiteko aurrez ikusitako egunaren aurreko bosgarren egunera arte, akziodunek beharrezkotzat jotako informazioak edo argibideak eska ditzakete Gai-zerrendan jasotako gaien inguruan, edo idatziz egin ditzakete egoki iruditutako galderak. Horrez gain, akziodunek administratzaileei idatziz eta epe beraren barruan, ahoz Batzarra egiten den bitartean edo, asistentzia telematikoaren kasuan, aurreraxeago zehaztuta datorren moduan, azken batzar nagusia egin zenetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari Sozietateak emandako eta publikoaren eskura dagoen informazioari eta auditorearen txostenari buruz beharrezkotzat jotako azalpenak. Horri dagokionez, informazio-eskaerak Akziodunen eta Inbertsiogileen Arretarako Bulegora bidali beharko dira (egoitza sozialera), posta elektronikoz, helbide honetara: accionistas@caf.net.

Akziodunaren identifikazio-berme egokiak zaintzeko, informazio-eskaeran izen-abizenak adierazi beharko ditu, eta akzioduna dela eta bere nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioaren kopia erantsi beharko du. Pertsona juridikoa izanez gero, akziodunaren ordezkari gisa, informazio-eskubidea erabiltzen ari den pertsona fisikoaren ordezkari-tza-gaitasunak ziurtatzen dituen dokumentuen kopia ere gehitu beharko da.

Gai-zerrenda osatzeko eta akordio-proposamen berriak aurkezteko eskubidea

Gutxienez kapital sozialaren ehuneko hiru (% 3) ordezkatzeko duten akziodunek Akziodunen Batzar Nagusiaren deialdiaren osagarria argitaratzeko eska dezakete. Bertan, gai-zerrendan, puntu bat edo gehiago sartzeko eska dezakete baldin eta puntu berri horiek justifikazioarekin edo, dagokionean, justifikatutako akordio-proposamenarekin aurkezten badituzte. Eskubide hori erabili ahal izateko, jakinarazpen fede-emailea erabili beharko da (Administrazio Kontseiluko idazkariari zuzenduta). Aipatutako jakinarazpena deialdi hau argitaratu eta hurrengo bost (5) eguneko epearen baitan jaso beharko dute egoitza sozialean.

Deialdiaren osagarria Batzarra lehen deialdian egiteko zehaztutako data baino hamabost (15) egun lehenago argitaratuko da gutxienez.

Ehuneko hori biltzen duten akziodunek, era berean, aipatutako epe horretan eta jakinarazpena egoitza sozialera bidalita, aurretik bilduta zeuden edo deitutako Batzarreko gai-zerrendan gehitu beharko liratekeen gaiei buruzko akordiorako oinarritutako proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte.

Batzar Nagusira joateko eskubidea

Batzarrera joateko eskubidea erabiltzearekin lotuta (aurrez aurre edo modu telematikoan izan axola izan gabe) akziodun jaun-andreei gogorarazten zaie gutxienez mila (1.000) akzioen jabetza egiaztatzen dutenek soilik izango dutela bertara joateko eskubidea Estatutu Sozialetako 7. eta 21. artikuluek xedatutakoa betez. Kopuru txikiagoa duten akziodunek taldean elkartuta edo mila (1.000) akzio edo akzio gehiago biltzen dituen beste akziodun baten alde eman dezakete haien ordezkari-tza.

Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusirako asistentzia, presentzia fisikoaren bidez ez ezik, bitarteko telematikoak erabilita ere egin ahal izateko aukera egokitzea adostu du.

Baliabide horiek Batzarra egingo den tokiarekin denbora errealean konektatzea ahalbidetu beharko lukete deialdi honetan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

Akziodunen Batzar Nagusiaren araudiko 9. artikulua xedatutakoa betez, Administrazio Kontseiluko kideek bileran urruneko komunikazio-bitartekoen bidez bertaratu eta parte hartu ahal izango dute.

A. Batzarrera modu fisikoan joatea

Batzarrera modu fisikoan joan ahal izateko, Sozietateak akziodunen esku jarritako bertara modu fisikoan joan ahal izateko txartela edo, dagokionean, akzioen gordailuzaina den erakundeak igorritako txartela jaso beharko dute akziodunek. Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA Unipersonal (IBERCLEAR) sozietateko partaide diren erakundeetakoren batek igorritako titularitate-ziurtagiria ere erabili ahal izango da.

Sozietateak asistentzia fisikorako akziodunen esku jarritako txartelak jasotzen ditu aplikagarriak diren erabilera-jarraibideak eta -arauak eta, deialdi hau argitaratzen den unetik, webgune korporatiboan (www.caf.net) egongo da etenik gabe argitaratuta Batzar Nagusira joateko eskubidea arautzen duten gainerako arau eta legeak bezalaxe.

B. Batzarrean modu telematikoa bertaratzea

i. Erregistroa, konexioa eta bertaratzea

Asistentzia telematikoko sistemen kudeaketa egokia ahalbidetu ahal izateko, Batzarrera joan nahi duen eta horretarako eskubidea duen akziodunak Sozietatearen webgunean horretarako egokitutako plataforma informatikoan erregistratu beharko du (www.caf.net). Bertan, bitarteko hauetakoren baten bidez, bere nortasuna egiaztatu beharko du: (i) Nortasun Agiri Nazional elektronikoa; (ii) onartuta dagoen, baliozkoa den eta indarrean dagoen erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa, Ziurtagirien Espainiako Agintaritza Publikoak (CERES), Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren mende dagoenak, igorritakoa eta aplikagarria den araudian aurrez ikusitakoa betetzen duena; edo (iii) akziodunak accionistas@caf.net posta elektronikoaren helbidean eskatu beharko dituen erabiltzailea/gakoa kredentzialak. Kasu horretan, gaian, “2023ko Batzar Nagusirako kredentzialak eskatzea” zehaztu beharko du.

Telematikoki parte hartuko duen pertsonak bere aldeko eskuordetzeak balitu edo, pertsona juridiko baten ordezkaria bada, aurreko paragrafoko (iii) puntuan jasotako prozeduraren arabera, erabiltzailearen kredentzialak/gakoa eskatu beharko ditu.

Bertaratutakoen erregistroa deialdi hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egin ahal izango da eta ez da gehiago onartuko 2023ko ekainaren 9ko 12:00etatik aurrera; hau da, Batzar Nagusia lehen deialdian egiteko aurrez ikusitako data eta ordua baino hogeita lau (24) ordu lehenago egin beharko da gutxienez.

Batzar Nagusian modu telematikoa parte hartzeko erregistratu den akziodunak edo haren ordezkariak webgunean konektatu beharko du (www.caf.net), 2023ko ekainaren 10en, 11:30 eta 12:00 bitartean, eta Sozietatearen webgunean helburu horretarako egokitutako plataforma informatikoaren bidez zehaztutako moduan identifikatu. Batzarra lehen deialdian egin ezingo balitz, hurrengo egunean, ordutegi-tarte berberean, konektatu

beharko du batzarra bigarren deialdian egin ahal izateko. Aipatutako data eta orduaren ondoren modu telematikoan bertaratzeko konektatzen diren akziodunak ez dira Batzar Nagusian bertaratutakotzat hartuko; dena den, webgune korporatiboaren bidez batzarra jarraitzeko eskubidea izango dute.

Atal honetan aurrez ikusitako helburuetarako, Sozietateak akziodunei edo edozein ordezkariari akziodunak edo ordezkariak direla egiaztatzeko eta botoaren edo eskuordetzearen benetakotasuna bermatzeko egokitzat edo beharrezkotzat jotako edozein identifikazio-bitarteko eskatzeko eskubidea izango du erreserbatuta.

ii. Esku-hartzea

Modu telematikoan joateko erregistroa egin duen eta Batzarrean esku hartu nahi duen akziodunak edo haren ordezkariak idatziz bidali ahal izango ditu aurkeztu nahi dituen esku-hartzeak, proposamenak, galderak edo eskaerak aurreko “i” atalean aipatzen den erregistro-ekitalditik hasi eta 2023ko ekainaren 9ko 12:00ak arte, Batzar Nagusiaren Araudian eta Legean aurrez ikusitakoa betez. Ez dira kontuan hartuko akziodunek edo bitarteko telematikoaren bidez bertaratutako gisa erregistratutako, baina Batzarrean egunean deialdi honetan aurrez ikusitako moduan konektatzen ez diren ordezkariak erregistratzeko garaian aurkeztutako esku-hartzeak, proposamenak, galderak eta/edo azalpen-eskaerak deialdian aurrez ikusita dagoen moduan.

Batzar Nagusian modu telematikoan parte hartzen duten akziodunek edo ordezkariak, gainera, bertaratutako zerrendako edukiarekin edo Batzar Nagusia eratzeko baldintzak betetzearekin lotuta izan ditzaketen erreserbak jasota utz ditzakete helbide honetara mezu elektronikoa bidalita: accionistas@caf.net.

iii. Bozketa

Gai-zerrendan jasotako puntuei buruzko proposamenen gaineko botoa, bide telematikoetik, Batzar Nagusiko Araudiko 16. artikulua ezarritako moduan egingo da Sozietatearen webgunean helburu horretarako egokitutako plataforma informatikoaren bidez.

Era berean, Legeak xedatutakoa betez, gai-zerrendan jasota egotea beharrezkoa ez den gaiei buruzko akordio-proposamenei dagokienez, bitarteko telematikoaren bidez bertaratutakoek beren botoak Batzar Nagusiko Araudiko 16. artikulua araberan igorri ahal izango dituzte Batzar Nagusiko idazkariak bozkatu beharreko proposamen horiek irakurtzen dituen unetik aurrera.

iv. Bilera uztea

Bitarteko telematikoaren bidez bertaratutakoak eta Batzarra utzi nahi duela espresuki adierazten duenak helbide honetara mezu elektronikoa bidalita jakinarazi beharko du: accionistas@caf.net. Bilera uzteko espresuki adierazitako asmoa jakinarazi ondoren, gerora egindako jarduera guztiak egin gabekotzat joko dira.

v. Beste gai batzuk

Sozietateak ez ditu bere gain hartuko webgunea batzuetan eskuragarri ez izatearekin, matxurekin, galkargekin, linea-erorketekin, konexio-akatsekin, edo antzekoa edo berdina den beste edozein gertakizun dela eta akziodunak edo ordezkariak jasan ditzakeen

kalteen gaineko erantzukizunik, horiek Sozietatearen borondatek kanpo daudenean, eta Batzarrean modu telematikoan parte hartzeko mekanismoak erabiltzea eragozten dutenean. Dena den, horrek ez du eragotziko egoera bakoitzak eskatzen dituen neurriak hartzea eta horietako batzuk izan daitezke hauek: Batzarra behin-behineko bertan behera uztea edo luzatzea, akziodunek edo haien ordezkariak dituzten eskubideak erabat betetzea bermatuko balu neurri horrek.

Batzarra egin aurretik botoa eta ordezkaritza urrunetik emateko eskubidea

Modu fisikoan edo telematikoan Batzarrera bertaratu ezin duten edo hala nahi duten akziodunek beren botoa urrunetik emateko edo beste pertsona batek ordezkatzeko aukera izango dute nahiz eta hura akzioduna ez izan. Horretarako baldintzak Kapitaleko Sozietateen Legean, Estatutu Sozialetako 21, 22, 22 bis eta 22 ter Akziodunen Batzar Nagusiaren Araudiko 9, 9 bis, 9 ter eta 12 artikuluetan eta Sozietateak emandako urruneko botorako edo botoa eskuordetzeko formularioetan daude jasota. Zehatzago esanda, urruneko botoa eta botoaren eskuordetzea posta-korrespondentziaren, posta elektronikoaren edo Sozietatearen webgunean helburu horrekin egokitutako plataforma informatikoaren bidez egin ahal izango da (www.caf.net).

Balioa izan dezan, atal honek xedatutakoa betez bidalitako boto-eskuordetzea edo urruneko botoa Batzar Nagusia lehen deialdian egiteko aurrez ikusitako data eta ordua baino hogeita lau (24) ordu lehenago jaso beharko dira gutxienez.

Batzarra eratzeke garaia, urruneko botoa ematen duten akziodunak bertaratu gisa hartuko dira kontuan.

Akzioduna Batzar Nagusira modu fisikoan edo telematikoan bertaratzeak edozein bitartekoren bidez aurrez emandako ordezkaritza eta botoa baliogabetzeko balioa izango du.

A) Boto-eskuordetzea eta urruneko botoa posta arruntez edo posta elektronikoz

Urruneko botoa edo boto-eskuordetzea posta-korrespondentzia edo posta elektronikoz bidez erabili nahi duten akziodunek Sozietateari bidali beharko dizkiote Akziodunen eta Inbertsiogileen Arreta Bulegora, esku jarritako formularioak (geroxeago dago zehaztuta modua) behar bezala beteta eta sinatuta, posta arruntez (Jose Migel Iturrioz kalea, 26. 20200 Beasain, Gipuzkoa) edo posta elektronikoz (accionistas@caf.net), horietan zehaztuta dauden jarraibideen arabera.

Bestela, akzioen gordailuzaina den erakundeak edo Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores SA Unipersonal (IBERCLEAR) sozietateko partaide den erakunderen batek igorritako botoa eskuordetzeko edo urruneko botoa emateko formularioak erabili ahal izango dira. Formulario horiek posta arruntez bidali behar izanez gero, ziurtatutako posta erabili beharko da hartu-agiriarekin, eta behar bezala beteta egon beharko dute formularioari erantsitako jarraibideetan ezarritakoaren arabera. Paragrafo honek aipatzen dituen formulario alternatiboetan aurrez ikusita ez dagoen guztian, Sozietateak akziodunen esku jarritako formularioetan aurrez ikusitako arau orokorrak aplikatuko dira.

Sozietateak akziodunen esku jarritako urruneko botoaren formularioa eta botoa eskuordetzeko formularioa uneoro egongo dira argitaratuta webgune korporatiboan (www.caf.net), deialdi hau argitaratzen den unetik.

B) Webgunean egokitutako plataforma informatikoaren bidez urruneko botoa ematea eta botoa eskuordetzea

Beren ordezkaritza eman edo botoa Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik igorri nahi duten akziodunek, gainera, horretarako aukera izango dute webgune korporatibora (www.caf.net) sartuta eta bertatik eginda. Deialdi hau argitaratzen den hurrengo egunetik hasita egin ahal izango dute hori Sozietateak helburu horietarako egokitutako plataformaren bidez. Horretarako, beren nortasuna egiaztatu beharko dute bitarteko hauetakoren baten bidez: (i) Nortasun Agiri Nazional elektronikoa; (ii) onartuta dagoen, baliozkoa den eta indarrean dagoen erabiltzailearen ziurtagiri elektronikoa, Ziurtagirien Espainiako Agintaritza Publikoak (CERES), Diruaren eta Zerga-zigiluaren Fabrika Nazionalaren mende dagoenak, igorritakoa eta aplikagarria den araudian aurrez ikusitakoa betetzen duena; edo (iii) akziodunak accionistas@caf.net posta elektronikoen helbidean eskatu beharko dituen erabiltzailea/gakoa kredentzialak. Kasu horretan, gaian, “2023ko Batzar Nagusirako kredentzialak eskatzea” zehaztu beharko du. Botoa eskuordetzeko edo urruneko botoa emateko plataformaren erabilerak lehentasuna izango du beste edozein bidetatik igorritako formularioen gainean.

Modu fisikoan bertaratzeko txartelen eta Batzarraren egunean aurkeztutako boto-eskuordetzeen onarpena

Batzar Nagusiko Araudiko 12. artikulua xedatutakoa betez, Batzarraren egunean aurkeztutako boto-eskuordetzeen eta bertaratzeko txartelen onarpena Batzar Nagusiko bilera hasteko zehaztutako orduan itxiko da. Horrekin lotuta, quoruma osatzeko helburuetarako ez dira kontuan hartuko une horretatik aurrera.

Modu fisikoan bertaratzeko txartelak eta eskuordetzeen txartelak onartzeko itxiera-orduaren ondoren agertutako akziodunak ez dira Batzar Nagusian bildutakotzat joko, baina gonbidatu gisa bertaratzeko aukera izango dute.

Notarioaren esku-hartzea Akziodunen Batzar Nagusian

Administrazio Kontseiluak notario bat bertara dadila eskatzea adostu du. Akziodunen Batzar Nagusiaren notario-akta idaztea izango da bere zeregina.

Akziodunen gunea

Sozietatearen webgunean (www.caf.net) dago Batzar Nagusi honetarako akziodunen Gune Elektronikoa gaituta. Banakako akziodunek zein, indarrean dagoen araudiaren arabera, hura era dezaketen borondatezko elkarteek izango dute sarbidea berme egokiekkin, Akziodunen Batzar Nagusia egin aurretik elkarren arteko komunikazioa errazteko asmoz. Akziodunen Gune Elektronikoaren araudia akziodunentzat eskuragarri dago Sozietatearen webgunean (www.caf.net).

Datuen babesa

Datu pertsonalen tratamenduaren erakunde arduraduna CAF da. Hark tratatuko ditu bere akzio-harremnaren baitan akziodunak ematen dizkion, batzarra egiteko garaian jasotako edo botoaren txartelean edo asistentzia-txartelean jasota dauden datu pertsonalak helburu hauetarako: (a) akzioen erlazioa eta Batzarraren deialdia, eta Batzarra kudeatzea eta kontrolatzea, CAFeko akzioduna bazara duzun kontratu mailako harremana edo, CAFeko akziodun baten ordezkaria bazara zure legezko interesa betetzeko oinarria aintzat hartuta; (b) Batzar Nagusiaren ikus-entzunezko filmaketa eta hedapen publikoa webgune korporatiboan (www.caf.net). Horren legitimazio-oinarria Sozietateak gardentasuneko eta gobernu korporatibo oneko printzipioa betetzearekin lotuta duen legezko interesa da; eta (c) lege mailako betebeharrak betetzea.

Zure datuak zehaztutako helburu horiek betetzeko beharrezkoa den epean eta horiek ezabatzea eskatzen ez den bitartean gordeko dira. Ondoren, datuak behar bezala blokeatuta gorde ahal izango dira tratamendutik eratorritako erantzukizunei aurre egiteko bertatik erator daitezkeen ekintzak preskribatzen diren epe barruan. Horrekin lotuta, zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo eramateko eskubideak balia ditzakezu, baita tratamenduari uko egiteko edo hura mugatzeko eskubidea ere, eskaera helbide elektronikoko honetara bidalita: dpo@caf.net. Bestela, Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean erreklamazioa aurkez dezakezu. Datu pertsonalen tratamenduari buruzko informazio osagarria kontsulta dezakezu Akziodunen Batzar Nagusiaren Pribatasun Politikan. Politika webgune korporatiboan (www.caf.net) dago irigarri.

Informazio orokorra

- Modu fisikoan eta telematikoan bertaratzeko, botoa eskuordetzeko eta urruneko botoa emateko eskubideak erabili ahal izateko, akziodunek kontuko idazpenen erregistroan beren izenean inskribatuta izan beharko dituzte akzioak Batzar Nagusia egingo den eguna baino bost (5) egun lehenago.
- Aurrez ikusitakoaren arabera, Batzarra lehen deialdian egingo da.
- Dokumentazioaren doako bidalketaren, azterketaren edo entregaren inguruko azalpenak, informazio osagarria edo deialdi honekin eta Batzar Nagusiarekin lotutako beste edozein gairekin lotutako edozein gairi buruzko azalpenak eskuratu ahal izateko, akziodunek Akziodunen eta Inbertsiogileen Arreta Bulegora jo ahal izango dute honako prozedura hauen bidez lanegunetan eta laneko ordutegiaren barruan:
 1. Telefonoa: +34 943.18.92.62.
 2. Posta elektronikoko helbidea: accionistas@caf.net.
- Aurrez ikusitakoaren arabera, Batzar Nagusia zuzenean emango da Sozietatearen webgunean horretarako egokitutako estekaren (www.caf.net) bidez.

Beasainen, 2023ko maiatzaren 8an

**Marta Baztarrika Lizarbe andrea
Administrazio Kontseiluko Kontseilari Idazkaria**